



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko urriaren 11

14. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, herri lanak eraikitzeko eta ustiatzeko esleipenak edo emakidak egiterakoan interes publikoa defendatzean zorrozki aritzeari buruzkoa. Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroako osasun publikoko itxaron zerrendak murrizteko. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geldiaraz dezan administrari laguntzaileen lanpostu hutsak lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko abian jarritako prozesua, eta hizkuntza eskakizuna aldatu eta beharrezkoa dena ezar dezan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, liburutegi nagusiaren eta filmotekaren lanak direla-eta, Kultura eta Turismo Departamentuak duen lan egutegiari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Ikasketa Barojiarren inguruko Biltzarraren atzerapenari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Gobernuo kideek Nafarroako Kutzako kontseiluan, zuzendaritza organoetan eta Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioan parte hartzea dela eta, horiek jasotako ordainsarien gaineko informazioa legebiltzarrera igortzeko Gobernuak duen asmoari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak aurrezki kutxei buruzko lege proiektu berria proposatzeko dituen arrazoiei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (8. or.).
- Galdera, iragan den urriaren 3an Ablitasen eginiko maniobra militarrei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (8. or.).
- Galdera, irakaskuntzako sindikatuekin lanaldi etengabea ezartzearen inguruan lortutako akordioa Hezkuntza Departamentuak noraino bete duen jakitekoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (9. or.).
- Galdera, Virgen de la Cabeza ikastetxearen egoerari eta lanaldi etengabea ez ezartzeko arrazoiei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (10. or.).

- Galdera, Berriozarko Udalak Berriozarko “Laira” emakumeari laguntzeko zentroarekin sinaturiko hitzarmena betetzeari buruzkoa, María Chivite Navascués andreak egina (11. or.).
- Galdera, ikasketa artistikoen ikasketak zabaltzeko dirulaguntzei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Antzerki Eskolari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, goi mailako antzerki ikasketei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroak SPRIN enpresa publikoarekin guztira duen zorrari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako enpresa publiko guztien zenbait daturi buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (14. or.).
- Galdera, arteak bulkatzeko egitasmoari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, udalen eta administrazioaren artean partzuergo bat sortzeari buruzkoa, 0tik 3 urtera bitarteko zikloarekin zerikusia duen guztia kudeatzeko buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko erakundeek enplegu plana garatzeko jarritako zenbatekoei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).
- Galdera, enplegu planaren aurrekontu betetzearen kontusail bakoitzaren xehakatzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (17. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Parlamentuko Mahaiko erabakia, Batzorde arruntak zehazten dituen (19. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztua (20. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, herri lanak eraikitze eta ustiatzeko esleipenak edo emakidak egiterakoan interes publikoa defendatzean zorrozki aritzeari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkezturiko jabeldura, herri lanak eraikitze eta ustiatzeko esleipenak edo emakidak egiterakoan interes publikoa defendatzean zorrozki aritzeari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Txentxo Jiménez Hervas jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 179. artikularen eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Herri lanak eraikitze eta ustiatzeko esleipenak edo emakidak egiterakoan, Donejakue Bideko Autobia edo Nafarroako Ubidearen kasuan adibidez, interes publikoa defendatzean zorrozki aritzeari buruzkoa.

Iruñean, 2007ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroako osasun publikoko itxaron zerrendak murrizteko.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroako osasun publikoko itxaron zerrendak murrizteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192., 193. eta 194. artikuluetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Nafarroako osasun publikoko itxaron zerrendak murrizteko, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena:

Osasun sistema publikoaren defentsa izan da sozialisten taldeak Legebiltzar honetan behin eta berriz izan duen lehentasunetako bat. Osasuna eta kalitateko osasun laguntza izateko eskubidea, herritar guztientzat berdintasunez eskuragarria, erreferentzia da sozialistontzat.

Osasuna eta kalitateko osasun zerbitzuak eskura izatea ongizatearen estatuaren oinarritzko eskubideetako bat da, eta nabarmenki laguntzen dio gizarte-kohesioari, zeina Europako hazkunde eta garapen ekonomikoaren eta sozialaren ereduaren oinarritzko elementua baita.

Osasun publiko eraginkorragoa izan nahi dugu, hobeki kudeatua eta modernoagoa alde guztietatik begiratuta. Baina, batez ere, herritar guztien arteko berdintasunaren oinarritzko tresna izaten jarrai dezan nahi dugu.

Itxaron zerrendek gure osasun sistemaren kalitatea hondatzea dakarte, eta ahaleginak, gure iritziz, zerbitzu horietan kalitate handia lortzera bideratu behar dira. Bermatu nahi duguna da gizon eta emakume nafarrei, beren maila ekonomikoa zein ere den, behar dutenean ematen zaiela laguntza, eta Osasunbideak ematen ahal dituen eta eman behar dituen kalitate handiko zerbitzuak jasotzen dituztela.

Laguntza kirurgiko programatua sendagileak agindu eta gehienez ere 180 eguneko epean izateko bermea, zeina irailaren 29ko 138/1998 Foru

Aginduaren bidez sartu baitzen indarrean, ez da aplikatzen ari.

Nafarroako Gobernuako lehendakariak, abuztuaren 9, 10 eta 11n eginiko inbestidura eztabaidan, ez zuen inongo konponbiderik iragarri itxaron zerrendetarako. Esan zuen bakarra izan zen "bitarteko zilegi eta demokratikoak" erabiliz konponduko zuela, baina ez zuen adierazi zer epetan eta zer bitartekorekin konponduko duen arazoa.

Ez dugunez oso ongi ulertzen zer esan nahi zuen Nafarroako Gobernuako lehendakariak adierazpen horiekin, eta gure helburua denez Nafarroako osasun sistema publikoan dauden gaixoei ematen zaien laguntza hobetzea, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Behar diren neurriak hartu Nafarroako sare publikoko laguntza espezializatuko itxaron zerrendak % 50 laburtzeko.

2. Gehieneko itxaron epeak murriztu osasun laguntza programatuan, eta honakoak bermatu: gehienez, 30 egun naturaleko itxaron epea kontsultarako, 45 egun naturalekoa proba diagnostikorako eta 120 egun naturalekoa ebakuntza kirurgikorako.

3. Hilero informazioa emanen duen sistema publiko bat sortu, herritar guztien eskura egonen dena eta itxaron zerrendetan zenbat gaixo dauden ezagutzeko, osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzuetako kirurgiako zerrendetan, kontsultetakoetan eta proba diagnostikoetakoan.

4. Urtero txosten bat prestatu itxaron zerrenden egoerari buruz, Osasun Departamentuak egina, zeina Parlamentuan aurkeztu beharko baita.

Iruñean, 2007ko irailaren 28an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da geldiaraz dezan administrari laguntzaileen lanpostu hutsak lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko abian jarritako prozesua, eta hizkuntza eskakizuna aldatu eta beharrezkoa dena ezar dezan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da geldiaraz dezan administrari laguntzaileen lanpostu hutsak lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko abian jarritako prozesua, eta hizkuntza eskakizuna aldatu eta beharrezkoa dena ezar dezan

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak

159/1988 Foru Dekretuan, euskarak hezkuntza administrazioan izanen duen erabilerari buruzko tituluan, hau esaten da, 21. artikuluan, hain zuzen: "ikastetxe publiko elebidunetan izaten den barne-araubideko administrazio jarduna, hala nola aktak, jakinarazpenak, ordutegiak, errotulazioa, iragarki-

oholean jendearentzat jarritako oharrak eta abar, hizkuntza bietan idatziko dira." "Ikastetxe elebidunetan, jendeak eskatutako administrazio jarduerak, erabiltzaileak eskatutako hizkuntzan eginen dira."

Era berean, 23. artikuluan ezartzen denez, "Nafarroako hezkuntza administrazioa saiatuko da behar diren mekanismoak eta baldintzak ezartzen ikastetxe publiko elebidunek irakasleak ez diren langile gaituak izan ditzaten foru dekretu honen ondoriozko betebeharreri aurre egiteko, eta, betiere, ukitutako langile finkoei lanean ari diren herriko ikastetxeren batean bermatuko zaie lanpostua."

Horiek horrela, ezin da ulertu euskara jakitea nahitaezko baldintza ez izatea hizkuntza eredu ezberdinak (A, B, D eta G) dituzten ikastetxeetarako administrari laguntzaileen lanpostu hutsak oposizio-lehiaketen bidez betetzeko deialdietan. Ondorioz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du geldiaraz dezan Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak ekainaren 11ko 1932/2007 Ebazpenaren bitartez abian jarritako prozesua, administrari laguntzaileen lanpostu hutsak lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa, eta hizkuntza eredu bat baino gehiago (A, B, D eta G) batera dituzten ikastetxe publikoetan, hizkuntza eskakizuna aldatu eta, euskara nahitaezko baldintza jarrita, lanpostuak elebidunak izan daitezzen.

Iruñean, 2007ko urriaren 2an

Eledunak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

F saila:
GALDERAK

Galdera, liburutegi nagusiaren eta filmotekaren lanak direla-eta, Kultura eta Turismo Departamentuak duen lan egutegiari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, liburutegi nagusiaren eta filmotekaren lanak direla-eta, Kultura eta Turismo Departamentuak duen lan egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Errege-

lamenduan xedatutakoaren arabera, liburutegi nagusiaren eta filmotekaren lanak direla-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun diezaion.

– Liburutegi nagusiaren eta filmotekaren lanak direla-eta, zein da Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak duen lan egutegia?

- Noiz hasiko dira eraikitze-lanak?

- Noiz bukatuko dira?

- Noiz paratuko da ekipamendua?

- Noiz irekiko da?

– Zein da aurrekontua? Nola ordainduko da?

Iruñean, 2007ko urriaren 2a

Foru parlamentarioa: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Ikasketa Barojarren inguruko Biltzarraren atzerapenari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Ikasketa Barojarren inguruko Biltzarraren atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurrak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Barojatarrei buruzko Biltzarra dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Kultura

eta Turismo Batzordean ahoz erantzun diezaion.

Zergatik atzeratu da berriro ere Ikasketa Barojarren inguruko Biltzarra?

Iruñean, 2007ko urriaren 2a

Foru parlamentarioa: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Gobernuko kideek Nafarroako Kutxako kontseiluan, zuzendaritza organoetan eta Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioan parte hartzea dela eta, horiek jasotako ordainsarien gaineko informazioa legebiltzarrerera igortzeko Gobernuak duen asmoari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuko kideek Nafarroako Kutxako kontseiluan, zuzendaritza organoetan eta Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioan parte hartzea dela eta, horiek jasotako ordainsarien gaineko informazioa legebiltzarrerera igortzeko Gobernuak duen asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Ekonomia eta Ogasun kontseilari Miranda jaunak, Legebiltzar honetako Ekonomia eta Ogasun Batzordean berriki eginiko agerraldian jakinarazi zuenez, asmoa du aurrezki kutxei buruzko lege proiektu bat prestatzeko, horiei buruzko guztia arautzeko, gure eskumenen baitan.

Gauza bera adierazi zuen bere lehen agerraldian Ekonomia eta Ogasun kontseilari ohi eta

Nafarroako Gobernuko lehendakariorde izandako Iribarren jaunak, eta, jakina denez, ez zuen bete. Era berean, aurreko legegintzaldian Nafarroako Kutxako estatutuak aldatu ziren eta, gure iritziz, foraltasuna maltzurki erabili zen; izan ere, gaur egun, Nafarroako Kutxa da demokratizatu ez den bakarra Estatuko kutxen artean, gure foraltasuna oinarri, gardentasuna eta ordezkari politikoen partaidetza saihestearren.

Egun, horren frogara argia dugu Nafarroako Kutxaren kontseilua, non ez baitago Nafarroa Bai koalizioa osatzen dugun alderdiok proposatutako kide bakar bat ere eta, aldiz, bai UPNk, CDNk, PSNk eta IUN-NEBek proposatutakoak.

Gogoratu beharra dago, halaber, Legebiltzar honek informazioa eskatu zuela Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxako kontseilurako izendatutako kide guztiek bileretara joategatik jasotzen zituzten ordainsariei buruz; Nafarroako Kutxak eta Nafarroako Gobernuak, ordea, ukatu egin zuten informazio hori, esanez Nafarroako Kutxa pribatua zela; beraz, Legebiltzar honi eta oro har herritarrei informazioa ukatu zieten.

Hori dela-eta, hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernua legegintzaldi honetan prest egonen al da Legebiltzar honek eska diezaiokeen informazioa igortzeko, jakiteko Gobernuko kideek zer ordainsari jaso dituzten Nafarroako Kutxako kontseiluan, zuzendaritza organoetan eta Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioan parte hartzeagatik?

Iruñean, 2007ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak aurrezki kutxei buruzko lege proiektu berria proposatzeko dituen arrazoiei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak aurrezki kutxei buruzko lege proiektu berria proposatzeko dituen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Ekonomia eta Ogasun kontseilari Miranda jaunak, Legebiltzar honetako Ekonomia eta Ogasun Batzordean berriki eginiko agerraldian jakinarazi zenez, asmoa du aurrezki kutxei buruzko lege proiektu bat prestatzeko, horiei buruzko guztia arautzeko, gure eskumenen baitan.

Gauza bera adierazi zuen bere lehen agerraldian Ekonomia eta Ogasun kontseilari ohi eta

Nafarroako Gobernuako lehendakariorde izandako Iribarren jaunak, eta, jakina denez, ez zuen bete. Era berean, aurreko legegintzaldian Nafarroako Kutxako estatutuak aldatu ziren eta, gure iritziz, foraltasuna maltzurki erabili zen; izan ere, gaur egun, Nafarroako Kutxa da demokratizatu ez den bakarra Estatuko kutxen artean, gure foraltasuna oinarri, gardentasuna eta ordezkari politikoen partaidetza saihestearren.

Egun, horren froga argia dugu Nafarroako Kutxaren kontseilua, non ez baitago Nafarroa Bai koalizioa osatzen dugun alderdiok proposatutako kide bakar bat ere eta, aldiz, bai UPNk, CDNk, PSNk eta IUN-NEBek proposatutakoak.

Horregatik, harrigarria da Gobernua orain aurrezki kutxei buruzko lege proiektu bat prestatzeko asmotan ibiltzea, legeak ez bailioke Nafarroako Kutxari eraginen, non eta ez den pentsatzen ari entitate berri bat sortzea edota ekimenen baten berri izanda hura oztopatu nahian ez dabilen.

Hori dela-eta, hau jakin nahi dut:

Zer arrazoi ditu Nafarroako Gobernuak orain aurrezki kutxei buruzko lege proiektu berria proposatzeko?

Entitate berriren bat sortzea aurreikusi al da, edo lege esparru horren beharra duen ekimenen baten berri izan al da?

Iruñean, 2007ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, iragan den urriaren 3an Ablitasen eginiko maniobra militarrei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, iragan den urriaren 3an Ablitasen eginiko maniobra militarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan Osoko Bilkuran:

Urriaren 3an Espainiako Erregea bertan dela Abilitasen egitekoak diren maniobra militarrei buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Errege etxeak edo armadak jakinarazi al diote ofizialki Nafarroako Gobernuari urriaren 3an, aste-

azkenarekin, erakustaldi militar bat egitea dagoela aurreikusita?

Zer erantzun zaie? Eta kontuan hartuta armatutako militar ugari izanen dela eta aire-erakustaldi bat egingen dela Nafarroako lurraldean, herritarrentzat arriskua ere baduena, hartu al da inolako segurtasun neurririk istripurik izan ez dadin?

Iruñean, 2007ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, irakaskuntzako sindikatuekin lanaldi etengabea ezartzearen inguruan lortutako akordioa Hezkuntza Departamentuak noraino bete duen jakitekoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, irakaskuntzako sindikatuekin lanaldi etengabea ezartzearen inguruan lortutako akordioa Hezkuntza Departamentuak noraino bete duen jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituneko bigarren puntuan jasota dagoenez, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei aukera emanen zaie, proba gisa, duten autonomia

pedagogikoa eta antolamendu-gaietako erabiliz, eskola-ordutegi malgua ezar dezaten, ikasleak bai goizean bai arratsaldean hartzeko proiektu bati jarraituz (zerbitzu osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak). Horretarako, ikastetxean matrikulatutako ikasleen gurasoen gehiengo kualifikatua beharko da, berariaz eginiko bozketa batean adierazia, eta ikastetxeko Eskola Kontseiluaren erabakia.

Hezkuntza Departamentuak, aurrekoa helburu, konpromisoa hartu zuen handitu egingen zuela, akordioaren indarraldian, ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontu-zuzkidura, eta lankidetzaren hitzarmenak sinatuko zituela tokian tokiko entitate publiko eta pribatuarekin, halako moduz non zerbitzu horiek bermatuta egonen ziren eskola-ordutegi malgu hori hautatzen zuten ikastetxeetan.

Hasiera batean, eta itunean ageri denez, 2007-2008 ikasturtean lau ikastetxetan proba modura ezartzeko eskaintza egingen da, horrela, etorkizunean, eskola-ordutegi malgua baldintzarik onenetan ezarri ahal izan dadin.

Hala ere, ikusi dugunez, saio hau plangintzarik gabe jarri da abian, Nafarroako hainbat arlotan gertatzen den moduan. Hain zuzen ere, ikastetxe pilotuetako batek, Virgen de la Cabezak, ezin izan du proba abian jarri aurreikusita zegoenean.

Edonola ere, akordioan adierazten denez, Hezkuntza Departamentuak handitu egingen du eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontu-zuzkidura. Gainera, lankidetzaren hitzarmenak

sinatzeko konpromisoa ere badu tokian tokiko entitate publiko eta pribatuekin.

Horiek horrela, eta ikasturte hasiera honetan sortutako egoera dela-eta, galdera hauek egin nahi dizkiogu Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Hezkuntza Departamentuak zenbateraino bete du irakaskuntzako sindikatuekin sinatu zuen akordioa, etengabeko lanaldia ezartzeari dagokionez?

• Zer lankidetzaz hitzarmen sinatu dira tokian tokiko entitateekin? Zer epe ezarri ziren? Zer bilera-egutegi izan da irizpideak eta edukiak erabakitzeko eta ezartzeko?

• Zer hitzarmen mota lortu da entitate pribatuekin?

Iruñean, 2007ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Virgen de la Cabeza ikastetxearen egoerari eta lanaldi etengabea ez ezartzeko arrazoiei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Virgen de la Cabeza ikastetxearen egoerari eta lanaldi etengabea ez ezartzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituneko bigarren puntuari jasota dagoenez, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei aukera emanen zaie, proba gisa, duten autonomia pedagogikoa eta antolamendu-gaietako erabiliz, eskola-ordutegi malgua ezar dezaten, ikasleak bai goizean bai arratsaldean hartzeko proiektu bati jarraituz (zerbitzu osagarriak, esko-

luz kanpoko jarduerak). Horretarako, ikastetxean matrikulatutako ikasleen gurasoen gehiengo kualifikatua beharko da, berariaz eginiko bozketa batean adierazia, eta ikastetxeko Eskola Kontseiluaren erabakia.

Hezkuntza Departamentuak, aurrekoa helburu, konpromisoa hartu zuen handitu eginen zuela, akordioaren indarraldian, ikastetxe publikoetako eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontu-zuzkidura, eta lankidetzaz hitzarmenak sinatu zituela tokian tokiko entitate publiko eta pribatuekin, halako moduz non zerbitzu horiek bermatuta egonen ziren eskola-ordutegi malgu hori hautatzen zuten ikastetxeetan.

Hasiera batean, eta itunean ageri denez, 2007-2008 ikasturtean lau ikastetxetan proba modura ezartzeko eskaintza eginen da, horrela, etorkizunean, eskola-ordutegi malgua baldintzarik onenean ezarri ahal izan dadin.

Hala ere, ikusi dugunez, saio hau plangintzarik gabe jarri da abian, Nafarroako hainbat arlotan gertatzen den moduan. Hain zuzen ere, ikastetxe pilotuetako batek, Virgen de la Cabezak, ezin izan du proba abian jarri aurreikusita zegoenean.

Edonola ere, akordioan adierazten denez, Hezkuntza Departamentuak handitu eginen du eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzeko aurrekontu-zuzkidura. Gainera, lankidetzaz hitzarmenak sinatzeko konpromisoa ere badu tokian tokiko entitate publiko eta pribatuekin. Horiek horrela, eta ikasturte hasiera honetan sortutako egoera dela-eta, galdera hau egin nahi diogu

Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Zer egoeratan dago Virgen de la Cabeza ikasketxea, eta zergatik ez du abian jarri, aurreikusita

zegoenez, etengabeko lanaldia?

Iruñean, 2007ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Berriozarko Udalak Berriozarko “Laira” emakumeari laguntzeko zentroarekin sinaturiko hitzarmena betetzeari buruzkoa.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Berriozarko Udalak Berriozarko “Laira” emakumeari laguntzeko zentroarekin sinaturiko hitzarmena betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioen azalpena:

2006ko martxoaren 16an Legebiltzarreko Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen Nafarroako Gobernuak premiatzea hitzarmen bat sinatzea Berriozarko Udalarekin emakumeari laguntzeko Laira zentroa finantzatzeko. Erabaki hori sozialisten ekimen baten ondorioz hartu zen, eta urtebete geroago izan zuen emaitza: hitzarmen bat sinatu zen, non 2007rako 140.000 euroko finantzaketa ezarri baitzen, eta zerbitzuaren osagarri bat. Osagarri hori da, besteak beste, Osasunbideak jarritako emagin baten zerbitzua, erre-

gistroak eginen baititu horretarako egokitutako gela batean.

Orain arte, langileen ordutegiari dagokiena besterik ez da bete, baina Laira udal zentroa, oraindik ere, Osasunbidearen sare informatikoarekin konektatu gabe dago eta, beraz, horren ondoriozko hutsuneak ditu zerbitzuak.

Gainera bada gela bat egokitua emaginak erregistroak egin ditzan, baina emaginik ez dagoenez, Berriozarko emakumeek Iturramako zentroa joan behar izaten dute haurdunaldiko azken hilabetean, eta haraino heltzea arazoa da emakumeon egoera kontuan hartuta.

Uneotan, gainera, Buztintxurin osasun etxe berria egiteko proiektua-edo dago; hori, hasiera batean, berri ona da, baina Nafarroako Gobernuak izan ditzakeen asmoek kezkatzen gaituzte; hau da, agian, emakumeari laguntzeko zentro berri bat egiteko asmoa izan dezakeela, Berriozarko erreturiko lukeen zentro bat, eta horrek Lairak Berriozarko 1986tik ematen duen zerbitzua desagertzea ekarriko lukeela.

Horregatik guztiatik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako galderak aurkeztu ditu:

- Emakumeari laguntzeko Berriozarko Laira udal zentroarekin sinatutako hitzarmenaren xedatutakoa noiz eta nola bete behar duzue?

- Ba al dago datarik Departamentuak behar den langilea bidali eta azken hilabeteko erregistroak Berriozarko Laira zentroan bertan egin daitezkeen?

- Osasun Departamentuak eta Berriozarko Udalak sinatutako hitzarmenak urteko indarraldia duenez, ba al du Osasun Departamentuak 2008rako hitzarmena berritzeko asmorik? Sartuko al du kontusail berririk aurrekontuan 2008rako?

• Buztintxurin osasun etxe berria eraikitzen denean, emakumeari laguntzeko zentroa ere izan dezakeenez bere barrenean, Gobernuak lekuz aldatzeko asmoa al du, aurreikus daitekeenez Buztintxurira, Lairan ematen den laguntza? Horrek

Berriozarko Udalarekin Laira zentroa finantzatzeko hitzarmena ez berritzea ekarriko al luke?

Iruñean, 2007ko urriaren 2an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, ikasketa artistikoen ikasketak zabaltzeko dirulaguntzei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, ikasketa artistikoen ikasketak zabaltzeko dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Ikasketa Artistikoen ikasketak zabaltzeko dirulaguntzak direla-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Zergatik emanen dira 105.000 euro dirulaguntza horietan, aurrekontuetan 150.000 euro izanik aurreikusiak?

Zergatik aurkeztu behar dira urtero ikasleak hauta-frogak egitera?

Etorkizunean dirulaguntza hauek zabaltzeko asmorik bai al du Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak?

Iruñean, 2007ko urriaren 2a

Foru parlamentarioa: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Antzerki Eskolari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Antzerki Eskolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Nafarroako Antzerki Eskola dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Ba al du Nafarroako Gobernuak datorren urteko aurrekontuetan NAE-ENTri zuzenean bideratutako diru-partida ezartzeko asmorik?

Iruñean, 2007ko urriaren 2a

Foru parlamentarioa: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, goi mailako antzerki ikasketei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, goi mailako antzerki ikasketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Goi Mailako Antzerki Ikasketak direla-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Ba al du Nafarroako Gobernuak legealdi honetan Goi Mailako Antzerki Ikasketak ezartzeko asmorik?

Iruñean, 2007ko urriaren 2a

Foru parlamentarioa: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroak SPRIN enpresa publikoarekin guztira duen zorrari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak SPRIN enpresa publikoarekin guztira duen zorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Zein da Nafarroaren zorra guztira, itzaleko bidesariaren formularen ondoriozko konpromisoak eta SPRIN enpresa publikoarenak barne direla?

Iruñean, 2007ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako enpresa publiko guztien zenbait daturi buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako enpresa publiko guztien zenbait daturi jaunak aurkeztutako galdera, Maiorga Ramírez Erro buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Gure erkidegoko enpresa publiko guztien izena eta xedea, bai eta bakoitzaren administrazio-kontseiluko kideen zerrenda.

Iruñean, 2007ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, arteak bulkatzeko egitasmoari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, arteak bulkatzeko egitasmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, arteak bulkatzeko egitasmoa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

– Zein da, zehatz-mehatz, Nafarroako Gobernuak burutuko dituen ekimenak “Arteak bulkatzeko egitasmoa” edo “Plan de impulso de las artes” izenekoak segituz?

– Zein da helburua?

– Zein da aurrekontua?

– Zenbat urtetan burutuko da?

Iruñean, 2007ko urriaren 4a

Foru parlamentario: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, udalen eta administrazioaren artean partzuergo bat sortzeari buruzkoa, 0tik 3 urtera bitarteko zikloarekin zerikusia duen guztia kudeatzeko buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, udalen eta administrazioaren artean partzuergo bat sortzeari buruzkoa, 0tik 3 urtera bitarteko zikloarekin zerikusia duen guztia kudeatzeko buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María

Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Kontseilariak Hezkuntza Batzordean egin zuen agerraldian jakinarazi zuenez, Departamentua aztertzen ari da ez ote litzatekeen komeniko “udalen eta administrazioaren artean partzuergo bat sortzea 0tik 3 urtera bitarteko zikloarekin zerikusia duen guztia kudeatzeko”.

• Ba al dute Nafarroako udalek ekimen horren berri?

• Aurreraterik ba al duzu partzuergo horren ildo guskiak eta edukia?

• Azaltzerik ba al duzu zenbateraino eraginen dien zerikusia duten administrazioei eta zenbaterainokoa izanen den horien parte-hartzea?

Iruñean, 2007ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: M.^a Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko erakundeek enplegu plana garatzeko jarritako zenbatekoei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko erakundeek enplegu plana garatzeko jarritako zenbatekoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Indarrean den Enplegu planaren finantzaketari buruz, parlamentari honek hauek jakin nahi ditu:

– Zer diru kopuru jartzen du zuzenean Nafarroako Gobernuak Enplegu planerako, eta zer diru kopuru Europako erakundeek?

Iruñean, 2007ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, enplegu planaren aurrekontu betetzearen kontusail bakoitzaren xehakatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, enplegu planaren aurrekontu betetzearen kontusail bakoitzaren xehakatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarrako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 190. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Indarrean den Enplegu planaren aurrekontuari eta betetzeari buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

– Enplegu planaren aurrekontu betetzearen kontusail bakoitzaren xehakatzeari.

Iruñean, 2007ko urriaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzekoa.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta, eta 4.4 oinarriak xedatutakoarekin bat, izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda hau onetsi da.

Hori dela eta, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio-kudeaketako teknikaria izateko lanpostu huts bat oposizio bidez betetzeko deialdiko 4.4 oinarriak xedatutakoarekin bat, izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda hau onestea:

Onartuak:

Aguayo Benito, María José
Albéniz Mtez. de Lizarrondo, M^a Celia
Alfaro García, Begoña
Aliaga Moreno, Iñigo
Alvarez Ciordia, Berta
Angulo García, Carlota Isabel
Aragón Legarre, Juan José
Aramburu Múgica, José María
Arazuri Garín, Juan Mari
Armendariz Recalde, Araceli
Arrechea Irigoyen, Maria Isabel
Ayesta Zardoya, Edurne
Balenzategui Arbizu, Enrique
Barber Ibero, Vanesa
Barber Zugaldía, Ana
Bordonaba Marín, Miguel
Burgos Custardoy, Eva M^a
Cía Barrio, Cristina
Cruzado Espinoza, Raúl Antonio
De la Fuente Lebantini, Alejandra
Durana Echazarra, Javier

Elizalde Marco, Alfonso
Errea Irisarri, Alberto
Estevan Sánchez, Asier
Fernández Pan, Isabel
García Fuentes, M^a Dolores
Garnica Viñaras, Jorge
González Azparren, Alfredo
Gonzalez de Castejón Hermoso, María Jesús
González Senosiain, Esperanza
Goñi Urrizola, Iñaki
Guillorme Rodrigo, Fermín
Hernández Ochoa, David
Jurío Izu, Begoña
Labrador Gonzalez, M^a Isabel
Landa Elizalde, Esmeralda
Larrasoña Zunzarren, Raquel
Larraya Reta, Javier
Lasanta Fica, Sergio
Layana Ilundain, Gonzalo
Lizarbe Chocarro, Javier
López Taules, Juan Carlos
Luqui Sarrasqueta, Delia
Mainz Petroch, Eva María
Martínez Asin, Jesús Carlos
Martínez Beriain, Iciar
Mendiola Goicoechea, Maite
Menéndez Pina, María Consuelo
Navarcorena Eleta, Eva
Pérez Aldaz, Cristina
Pinillos Salvador, M.^a Teresa
Piquer Lapuerta, Francisco Javier
Quiles Ortega, Catalina
Ranedo Solana, Aurora
Rekalde Eseberri, Belen

Ripa Azanza, Raquel
 Ruiz Gonzalez, M^a Pilar
 Sáinz Jiménez, Ana
 Sesma Vállés, Amaya
 Sola Solá, M.^a Ujué
 Soto Cotorro, Irune
 Urtasun Díaz, Rosa Ana
 Valdeande Berdonces, Alejandro
 Vázquez Matilla, Francisco Javier
 Vidaurre Alli, Gema
 Vidaurreta De la Cruz, Miguel
 Zozaya Garralda, Sergio

Baztertua:

Zarranz Alli, Ana Belén (*)

(* Eskabidea epetik kanpo aurkezteagatik.)

Bigarrena. 6.1 oinarrian xedatzen denez, zehaztea deialdiko lehenbiziko ariketa 2007ko azaroaren 17an, goizeko 9etan, hasiko dela, Nafarroako Parlamentuko egoitzan, Navas de Tolosa kalea, 1 Iruña. Izangaiek nortasun agiria edo pasaporte eta boligrafoa ekarri beharko dute.

Hirugarrena. Hauexek izanen dira epaimahai kalifikatzaileko kideak:

– Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros jauna, Nafarroako Parlamentuko Mahaiko Lehen Lehendakariordea.

– Ordezko lehendakaria: Koldo Amezketa Díaz jauna, Nafarroako Parlamentuko Mahaiko Bigarren Lehendakariordea.

– Epaimahaiko kidea: Francisco Javier del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako burua.

– Ordezkoa: María Victoria Larrañeta Lizarrondo andrea, Nafarroako Parlamentuko teknikari diplomatua.

– Epaimahaiko kidea: Fernando Zulet Recalde jauna, Kontu-hartzaile eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuko burua.

– Ordezkoa: Laura Vidán Astiz andrea, Nafarroako Parlamentuko administrazio-kudeaketako teknikaria.

– Epaimahaiko kidea: Ander Irizar Apaolaza jauna, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

– Ordezkoa: Eduardo Aranaz Jiménez jauna, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak izendatua.

– Epaimahaiko idazkaria, hizpidearekin eta botoarekin: Nekane Iriarte Amigot andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

– Epaimahaiko ordezkari idazkaria, hizpidearekin eta botoarekin: Miguel Esparza Oroz jauna, Nafarroako Parlamentuko Legelari Nagusiaren ondokoa.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko web orrian (www.parlamento-navarra.es) argitaratzea

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiko erabakia, Batzorde arruntak zehazten dituena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duen abuztuaren 16ko 12/2007 Foru Dekretua ikusita, kontuan hartuz Mahaiak, Erregelamenduaren 58.1 artikularekin bat, Foru Araubideko, Erregelamendu eta Eskaera batzorde arruntez gain, Erregelamenduan espresuki aipatzen baitira, gainerako batzorde arruntak zehaztuko dituela, eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentuekin bat eginen duela hori, honakoa erabaki da:

1. Honakoak Nafarroako Parlamentuko batzorde arruntak direla zehaztea:

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordea
- Ekonomia eta Ogasun Batzordea
- Erakundeekiko Harremanetarako eta Gobernuko Eledunaren Batzordea

- Toki Administrazioiko Batzordea
- Hezkuntza Batzordea
- Osasun Batzordea
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordea
- Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordea
- Kultura eta Turismoa-Vianako Printzea Erakundekeko Batzordea
- Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Batzordea
- Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordea
- Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Batzordea

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko urriaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko azken xedapenetako lehenbizikoan eta 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena izapidetzeko onartzea eta Osoko Bilkurara igortzea aintzat har dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko urriaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena

ZIOEN AZALPENA

Parlamentu honetako lehenengo legegintzalditik hona, eserlekuak talde bakoitzaren parlamentari kopuruaren arabera banatu izan dira. Eserleku horien kokagunea Osoko Bilkuren aretoaren eskuinaldean, ezkerrean edo erdialdean izaten da, taldeen jarrera ideologikoak eta, espresuki, lortutako parlamentari kopurua, errespetatzen diren parlamentu demokratiko gehienetan egin ohi den bezala.

2007ko ekainaren 5ean eginiko bilkuran, Batzorde Iraunkorraren Mahaiak erabaki zuen zer eserlekutan jarriko ziren parlamentu-taldeak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran, eta ez zen Nafarroa Bairen borondatea errespetatu, Parlamentu honetan eserleku gehien eta boz gehien dituen bigarren taldearena.

Mahaiak ekainaren 5ean hartu zuen ebazpen horren kontra, parlamentu-talde honek helegitea aurkeztu zion Eledunen Batzordeari, eta hark ezetsi egin zuen, horretarako oinarri hartuz Mahaiaren gehiengoaren irizpidea.

Gai honetan Mahaiaren erabakiak ezin du nahierakoa izan, ezta oinarririk eta funtsik gabeko irizpide bat ere eduki euskarri. Mahaiak gai horretan orain arte egindakoa errespetatu behar du, eta parlamentu-taldeen eskubideak eta borondatea ere errespetatu behar ditu, kontuan hartuz taldeen kide kopurua eta horien jarrera ideologikoak.

Berriki eginiko hauteskundeetan boz gehien izaniko bigarren indarra izan garez gero, Parlamentuko lehendakariaren ezkerrean hautatzea legokiguke, hau da, aurreko legegintzaldian PSNko parlamentariak jartzen ziren eserlekuak hautatzea.

Horiek horrela, herritarrek emaniko bozak errespetatze aldera eta gai hau ez dadin Mahaiaren esku gelditi, parlamentu-talde honek Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren egungo testua aldatzea proposatzen du.

Artikulu bat, 32. bis, gehitzea proposatzen dugu.

Hau da proposatzen dugun testua:

32. bis artikulua.

“1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak parlamentu-taldeen eserlekuak banatzerakoan Osoko Bilkuren aretoan, batzordeen aretoetan eta Mahai eta Eledunen Batzarraren aretoan, taldeen erabakia, handienetik txikienera adierazia, errespetatuko du eta, taldeek parlamentari kopuru bera dutenean, hauteskundeetan hautagaitza bakoitzak izaniko boz kopurua hartuko du kontuan “

2. Aldaketa hau 2007-2011 legegintzaldian indarrean sartu eta aplikatuko da.